



Ayuntamiento de  
BERRIOPLANO  
BERRIOBEITiko Udala  
(Navarra – Nafarroa)

## **BANDOA** **Jakinarazten da**

COVID-19 birusaren hedapenak, sortutako alarma sozialak eta Osasunaren Mundu Erakundeak egindako pandemia adierazpenak sortutako egoera ikusita.

Kontuan hartuta osasun-agintariek pertsonen pilaketak saihestea gomendatzen dutela eta gomendatu beharreko irizpide nagusia prebentzioa dela.

Alkate-udalburuari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 3ko 7/1985 Legearen 21.1. m) artikulua araberak, aparteko eta presazko beharrezkoak diren neurriak hartzea, eta udalbatzari berehala jakinaraztea.

### **HAU EBATZI DUT:**

1. Berribeitiko Udalak antolatzen dituen udal jarduera guztiak etetea, baita udal instalazioetan egiten direnak ere (kirol, gazte eta kultur jarduerak).
2. Udal instalazioak ixtea: Artikako Kirol Hiria eta Berribeitiko Udal Igerilekuak.
3. Artiguneak, Artikako Kultur Etxea, liburutegia, musika-eskola, Berribeitiko erabilera anitzeko aretoak eta Artikako eta Berriusoko haur-eskolak ixtea.
4. Udal-bulegoetan jendaurreko arreta 09: 00etatik 11: 00etara egingo da, baina gomendatzen da beharrezkoak denean soilik joatea. Gainerakoentzat Administrazio Elektronikoa eta telefono bidezko kudeaketa eta posta elektronikoa erabili.  
Telefonoa: 948 30 31 29  
Posta elektronikoa: ayuntamiento@berrioplano.es
5. Udal-espazioak elkarteei lagatzea ere eten egiten da.
6. Segurtasun-, larrialdi- eta garbiketa-zerbitzuek normaltasunez funtzionatzen jarraituko dute.
7. Goian adierazitako neurriak ebazpena sinatzen denetik berriro abisua eman arte aplikatuko dira.
8. Ebazpen hau jakinaraztea, ezagutu eta bete ditzaten: herritarrei bando fisiko zein elektronikoen bidez, webgunean; udal arloei; Gesport eta Urrats Eskola haur-eskolen enpresei; bai eta herriko gizarte-komunikabideei ere.

Berribeitin, 2020ko martxoaren 13an.

ALKATEA  
Raúl Julio Bator Pérez

